

## IRAKASKUNTZA GIDA: AHO-HORTZ GAIXOTASUNEN MIKROBIOLOGIA

### HELBURUA

Ikasgai honen helburua aho barrunbean dauden mikroorganismoak ezagutzea da, bai osasun egoeran bai aho-hortz gaixotasunetan inplikaturak daudenak.

Ikasgai honetan aho-hortz gaixotasunak aztertuko dira, eta gaixotasun bakoitzean mikroorganismo desberdinen rola ikasiko da

Honetaz aparte, ahoko gaixotasun infekziosoen diagnostiko mikrobiologikoa nola egiten den azalduko da: lagin kliniko egokia nola aukeratu eta lortu, lagin klinikoak garraiatzeko eta biltegitratzeko jarraitu behar diren baldintzak, eta mikroorganismoak identifikatzeko erabiltzen diren teknikak.

### DESKRIBAPENA

Aho barrunbean mikroorganismo asko aurkitzen dira, batzuk denboraldi batez, eta beste batzuk iraunkortasun gehiagorekin. Ahoan dauden ehunetara, edo material biomedikoetara atxikitzen dira. Mikroorganismoen kokapena ehun desberdinen eta mikroorganismo desberdinen arabera izango da, ahoko ekosistema desberdinen ezaugarri fisiko, kimiko eta nutrizionalak mikroorganismo espezie batzuen edo besteen hazkuntza baimenduko dutelako

Normalean sistema ekologiko hau orekatuta mantentzen da, eta mikroorganismoek ez dituzte gaixotasunik sortzen. Oreka galtzen bada, gaixotasun infekziosoak eta beste aho-hortz patologiak ager daitezke, hala nola, txantxarra, gingibitisa, periodontitisa edo pulpitis.

Batzuetan aho barrunbeto mikroorganismoak edo haien toxinak odol hodietara helduko dira; hemendik oso erraz hedatuko dira gorputzeko beste organoetara eta batzuetan organo hauetan infekzioak sortuko dituzte, adibidez, endokarditisa. Bestalde, organismoan ematen diren prozesu infekzioso

sistemiko batzuk aho barrunbean eraginak eduki ditzakete, adibidez lesioak aho mukosan.

Ikasgai honetan alderdi guzti hauek aztertuko ditugu gai teoriko eta ariketa batzuen bidez.

## **GAITASUNAK**

1. Aho barrunbeko konposaketa eta ekologia ezagutu, eta hauen garrantzia mikroorganismoen hazkuntzarako.
2. Aho barrunbean dauden mikroorganismoen ezaugarriak aztertu
3. Ahoko gaixotasun infekziosoen patogenia ulertu: hortz plaka, txantxarra, gingibitisa, periodontitisa, gaixotasun endodontikoak... Prosezu hauetan mikroorganismoen eginkizuna aztertu, eta gaixotasun hauek nola prebenitu
4. Ahoko patologiak dituzten eragin sistemikoak eta infekzio sistemikoek dituzten ahoko agerpenak ezagutu
5. Ahoko gaixotasun infekziosoen diagnostiko mikrobiologikoa nola egin ikasi: lagin kliniko egokia aukeratu eta lortu, eta lagin klinikoak garraiatzeko eta biltegitratzeko jarraitu behar diren baldintzak.

## **NORI ZUZENDUTA: AURREBALDINTZAK**

Ikastaro honek Odontologia Graduko ikasleentzat erabilgarria izango da, aho barrunbeko mikrobiologia eta ahoko prozesu patologikoak non mikroorganismoek parte hartzen duten azaltzen direlako.

Gainera, antolatuta dagoen moduagatik osasun zientzietako beste Graduetan interesgarria izan daiteke, adibidez, Medikuntzako bigarren eta hirugarren maila. Gradu honetan ez dira bereziki aho-barrunbeko gaixotasun infekziosoak azaltzen eta hemen agertzen den informazioa lagungarria izan daiteke prozesu patologiko hauek hobeto ulertzeko.

Formazio-ziklo zientifiko-teknikoetako ikasleak ere gai izango dira kurtso hau jarraitzeko antolatuta dagoen moduagatik; batez ere ahoko higiene formazio-zikloko ikasleak.

## **PROGRAMA**

### **Oinarri teorikoak**

1. Gaia. Ahoko mikrobiologiaren sarrera.
2. Gaia. Ahoko mikrobiotaren konposaketa eta ekologia.
3. Gaia. Ahoko determinatzaile ekologikoak.
4. Gaia. Hortz-plaka.
5. Gaia. Hortz-txantxarra.
6. Gaia. Gaixotasun periodontala eta periinplantarioa.
7. Gaia. Gaixotasun endodontikoa eta erlazioatuta dauden beste prozesuak.
8. Gaia. Ahoko patologiarekin eragin sistemikoak.
9. Gaia. Infekzio sistemikoen ahoko agerpenak.
10. Gaia. Aho-hortz gaixotasun infekziosoen laborategiko diagnostikoa.

### **Ariketak**

Kasu klinikoak

### **Autoebaluaketarako testa**

### **Bibliografía**

## **METODOLOGIA**

Ikasgai honetan, aspektu teorikoak jorratzeko gai-teoriko bakoitzaren azalpen bat garatu da. Behin gai guztiak ikasita, ariketa batzuk proposatzen ditugu gai

desberdinetan ikasitakoa praktikan jartzeko. Ariketa hauetan kasu-  
metodologiaren erabilpen praktikoa egiten da eduki teorikoak garatzeko.  
Bukatzeko, autoebaluaketarako test baten bidez ikasleak bere ezaguera maila  
neurtu ahal du.

## **KRONOGRAMA**

Kurtso hau ondo jarraitzeko lehenengo gai teorikoak irakurtzea gomendatzen  
da. Gai teoriko bakoitza lantzeko 5 ordu behar dira, bai gaia irakurtzeko eta  
ikasteko, eta bai proposatutako beste artikulu batzuk ere irakurtzeko.

Ondoren, kasu klinikoak egin ahal dira. Planteatzen diren kasu klinikoek gai  
teorikoetan azaldu dena praktikan jartzeko balio dute.

Bukatzeko, autoebaluaketarako testa egin ahal da, bakoitzak bere ezaguera  
maila neurtzeko.